

Giza Zientzietako eta Gizarte Zientzietako *abstract*-ak, berdinak ote? Euskarazko laburpenen diskurtso-ezaugarriak

*Are Abstracts in Social Sciences and Humanities the same?
Discursive Features of Basque Abstracts*

MARI MAR BOILLOS PEREIRA

Universidad del país Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
mariadelmar.boillos@ehu.eus

GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA

Universidad del país Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
garbine.bereziartua@ehu.eus

Recibido: marzo de 2021. Aceptado: mayo de 2021.

Laburpena: Laburpen zientifikoak edo *abstract*-ak garrantzi esanguratsua du esparru akademikoan. Horregatik egin dira hainbat azterlan testu horien egitura prototipikoa hizkuntza eta diziplina desberdinetan ezagutzeko. Azterlan honetan, euskarazko testu horien ezaugarri diskurtsiboak ezagutu nahi dira, baita Gizarte Zientzien eta Giza Zientzien eremuko artean desberdintasunik ba al dagoen ikusi ere. Horretarako, *Uztaro* aldizkariaren azken 5 urteetako 99 laburpen aztertu dira Hyland-en eredua jarraituz (2000). Emaizen arabera, egitura ugari daude eta homogeneousun orokorra falta da, bai ezagutza-eremu batean eta bai bestean. Hori dela eta, sistematikotasunerantz urratsak emateko beharrari buruz egindako hausnarketak aurkeztuko dira.

Gako-hitzak: Giza Zientziak, Gizarte Zientziak, idazketa akademikoa, laburpen zientifikoak, analisi diskurtsiboa.

Abstract: Scientific summaries or abstracts have a significant importance in the academic field. This is why many studies have been carried out on the prototypical structure of these texts in different languages and disciplines. In this work, we want to know the discursive characteristics of these texts in Basque and also identify the differences between the Social and Human Sciences. For this purpose, the 99 abstracts published in the journal *Uztaro* in the last five years have been analysed, based on Hyland's model (2000).

According to the results, there are multiple structures and there is a general lack of homogeneity, both in one and in another discipline. Therefore, reflections will be presented on the need to take steps towards systematization.

Keywords: Social Sciences, Humanities, Academic Writing, abstracts, discursive analysis.

I.- SARRERA

Unibertsitate-eremuan idazteak komunitate akademikoaren berezko interakzio-moduak menderatzea eta errealitate horretan sortzen diren testu-generoen ezaugarriak ezagutzea eskatzen du. Hortik dator, beste testu-genero batzuen artean, *abstract*-en azterketari jarri zaion arreta helburu espezifikoak dituzten erretorika- eta hizkuntza-ikasketetan. Testu-genero hori bereziki garrantzitsua da kontuan hartzen bada irakurleak artikulua zientifikoekin duen lehen kontaktua dela eta erabakigarria dela artikulua irakurriko den ala ez erabakitzeke orduan (Piqué-Noguera 2012). Horregatik da garrantzitsua genero horren eraikuntza menderatzea eta balizko irakurleek aurkitu asmo dituzten egituretara egokitzea.

Azterketa honek premisa hori du abiapuntu eta euskararen mundu akademikora garamatza. Historian zehar ezagutzaren zabalpena euskaraz eta hainbat genero diskurtsiboren bidez egin dela frogatuta badago ere (Artetxe 2013), Boillosen eta Bereziartuaren (2020) lanak adierazten du euskaraz idatzitako abstracten tradizioa laburra dela, eta orain ari dela gertatzen euskarazko laburpenak barne hartzen dituzten aldizkariaren gorakada esanguratsua. Horrela, lan honen helburua da, beste hizkuntza batzuetan (gaztelania eta inglesa, besteak beste) egin den bezala, Giza eta Gizarte Zientzietako laburpen zientifikoek zer ezaugarri diskurtsibo dituzten (*Discourse Analysis*) jakitea eta bi ezagutza-eremu horien artean desberdintasunik ba al dagoen ikustea. Horretarako, *Uztaro* aldizkariaren azken 5 urteetako *abstract* guztiak aztertu dira. 99 testuri esker, jokabide homogeneorik ba al dagoen eta bi ezagutza-eremu handien artean alde nabarmenik ba ote dagoen egiaztatu ahal izan da.

Helburu horrekin, lan honetan, lehenik eta behin, *abstract* bat zer den eta egiturazko zer ezaugarri dauzkan aztertuko da. Era berean, gai horri buruzko azterketa garrantzitsuenak berrikusiko dira. Hurrengo atalean, metodologian, azterketaren helburuak, lagina eta datuak aztertzeke prozedura deskribatuko dira. Eraitzen atalean ikerketa-galderei erantzungo zaie eta, azkenik, gure hausnarketak aurkeztuko dira.

II.- MARKO TEORIKOA

Berrikuspen teoriko honetan *abstract* edo laburpen zientifiko bat zer den azalduko dugu. Era berean, bere egitura eta antolaketaren inguruan ikertu dena berrikusiko dugu. Azkenik, diziplina desberdinetan eta, zehazki, Gizarte

Zientzietan eta Giza Zientzietan *abstracten* ezaugarriei buruz orain arte egon diren emaitzen egoera aurkeztuko dugu. Azterlan honen gaia euskarazko idazketa akademikoa da. Euskararen garapena eta testuinguru akademikoan izan duen bilakaera ezagutzea ezinbestekoa izanik, komenigarria litzateke Boillosek eta Bereziartuak (2020) deskribatzen duten errealitatearen konplexutasuna kontuan hartzea.

2.1. *Abstracta*, testu-generoa

80ko hamarkadaz geroztik, idazketa akademikoak interesa piztu du hizkuntzalaritzaren eta hezkuntzaren eremuan, unibertsitate alorrean ekoizten eta kudeatzen diren testu-generoak aztertzen eta lantzen hasi baitira. *Testu-genero* kontzeptuaren sortzailea den Bakhtin-en (1979) arabera, testu-generotzat hartzen dira diskurtso-forma estereotipatuak, erabileraren poderioz finkatu direnak eta komunikazio-egoera berberetan egonkortasunez errepikatzen direnak. Horregatik, hiztunek ezagutu eta parteka ditzaketan formak dira, eta haien formatua eta testuingurua identifikatzen dituzte.

Nahiz eta 90eko hamarkadan *abstracta* komunitate zientifikoak baztertu-tako testu-generoa izan (Swales 1990), gaur egun ez dago zalantzarik esatean *abstractek* zientziaren arloan garrantzi nabarmena daukatela. *American Psychological Association* (2020) erakundearen arabera (aurrerantzean, APA), bai bertako arauen zazpigarren edizioa argitaratzean, bai aurreko edizioetan, laburpenak 250 hitz inguru luze direla arautzen den arren, laburpen horiek ezagutza zabaltzeko lehen tresna bihurtu dira. Testu zientifikoek bilaketak egiten direnean, ikertzaileak —izan adituak edo izan hasiberriak— irakurtzen duten lehenengo testu-zatia laburpena izango da. Hala, testu hori erabakigarria izango da jarraian datorren informazioa irakurriko duten ala ez erabakitzerako orduan (Quintanilla, 2016). Ondorioz, beharrezkoa izango da *abstracta* ondo idatzita egotea; bestela, artikulua agian ez du merezi duen arreta jasoko (Piqué-Nogueira 2012).

Beraz, berezko entitatea duen testu-genero bat da, bere atzetik doan artikulua zientifikoaren funtsezko ideiak laburbiltzen dituena (Tseng 2011). Helburua, argi dago: jendearen arreta bereganatzea. Horretarako, APAk (2020) uste du *abstractak* funtsezko lau ezaugarri izan behar dituela. Alde batetik, zehatza izan behar du, hau da, lanaren helburu eta eduki zehatzak islatu behar ditu, ez gehiago, ez gutxiago. Bestetik, beharrezkoa da objektiboa izatea, ez ebaluatzailea, eta, beraz, egilearen edo egileen iritzia pertsonala ez jasotzea. Hirugarrenik, beharrezkoa da koherentea eta irakurgarria/ulergarria izatea. Laburpeneko diskurtsoa argia eta koherentea izan dadin, hobe da orainaldian egotea, eta forma aktiboak lehenesten dira. Azkenik, laburra izan behar du eta perpaus bakoitzak ahalik eta informazio gehien eman behar du.

Abstractaren hartzailea erakarri eta artikulua irakurtzen jarrai dezan lortzeko beharrak genero horren egitura prototipikoa zein den jakiteko interesa piztu du. Hala, azterlan askok adierazi dute testuaren barruan funtzio komunikatiboak dituzten unitate diskurtsibo edo erretoriko desberdinak daudela. Unitate horiei

moves deitu izan zaie (hemen *mugimendu* adiera erabiliko dugu). Beste era batera esanda, diskurtsoaren zati identifikagarriak dira, helburu zehatzak dauzkatenak.

Gaur egun arte, asko dira mugimendu horien sekuentzia identifikatzen saiatu diren ikerketak (Weissberg eta Buker 1990, Bhatia 1993, Dos Santos 1996, besteen artean). Hala ere, Hyland-en (2000) lanak izan du arrakastarik handiena. Ingeleseko IPMPPrC siglez ezagutzen den eredu honetan, bost *moves* (mugimendu) dituen egitura bat ezartzen da:

- I, *introduction*. Zati honetan, azterketaren testuingurua eta izateko arrazoia aurkezten dira.
- P, *purpose*. Lanaren helburuei, tesiei eta hipotesiei egiten die erreferentzia.
- M, *method*. Hemen, erabilitako metodoari buruzko informazioa azpimarratzen da: prozedurak, datuak biltzeko tresnak, parte-hartzaileak, etab.
- Pr, *product*. Ikerketaren emaitzak: «Produktua». Mugimendu honek, askotan, soluzio edo produktuaren ezaugarri edo propietate nagusien deskribapena ere barne hartzen du.
- C, *conclusions*. Emaitzak artikulua irismenetik harago zabaltzeko helburua dute. Azken mugimendu horrek hainbat eduki izan ditzake: emaitzen ondorioak ondorioztatzea, ikerketaren balioa ebaluatzea eta/edo gomendioak aurkeztea.

Eredu hori erabili izan da arlo horretan argitaratu diren azterlan gehienak egiteko. Hurrengo atalean horietako batzuk aipatzen dira.

2.2. *Abstractak diziplinetan: Gizarte-Zientzien eta Giza-Zientzien kasua*

Laburpenak ez dira beti mugimendu prototipikoz osatuta egon ohi, eta mugimendu horien hurrenkeran ere aldaketak egon daitezke. Horretan, egileen erabakiak sartzen dira jokoan eta, batzuetan, argitaratuko den aldizkariaren gidalerroak. Baina badira mugimendu horien presentziari edo gabeziari eragiten dioten beste irizpide batzuk ere, besteak beste, ezagutza-eremu bakoitzeko idazmoldeak. Testu-genero honen izaerari buruz gehiago jakiteko dagoen interesak hainbat ikerketa-lerro sortu ditu.

Lehenengoak erretorika kontrastatzailean (*Contrastive Rhetoric*) du jatorria (Kaplan 1966) eta zeinahi hizkuntzatan idatzitako *abstracten* arteko ezberdintasunak aztertzea du helburu nagusi. Horrela, normalean ingelesa hartzen da ardatz gisa, esparru akademikoan nagusi den hizkuntza delako (Laborde 2011), eta hizkuntza horretako *abstractak* beste hizkuntza batzuetan argitaratutakoekin alderatzen dira (Alotaibi 2015, Zanina 2017, besteen artean). Ikerketa horiek erakutsi dute mugimendu batzuen edo besteen lehentasuna lana idazten den hizkuntzaren arabera izan daitekeela. Beste ikerketa batzuek egileen ama-hizkuntzan jartzen dute arreta. Ikertzaileen ama-hizkuntza ingelesa denean edo ikertzaileen ama-hizkuntza ingelesa ez den beste hizkuntza bat

denean *abstractetan* desberdintasunak agertzen diren edo berdin egituratzen diren jakin nahi da (Friginal eta Mustafa 2016, Al-Khasawneh 2017, besteen artean). Alde horretatik, portaerak ezberdinak direla ikusten da eta azterlan horien emaitzak baliagarriak dira ama-hizkuntza ingelesa ez duten egileek ingelesezko testu zientifikoak idaztean dituzten zailtasunak ezagutzeko eta esku-hartze didaktikoak diseinatzeko laguntzen du. Horiez gain, hain ohikoak ez badira ere, badaude lanak kalitate zientifiko handiko aldizkarietan argitaratzen diren *abstracten* eta ospe gutxiagoko aldizkarietan argitaratzen diren *abstracten* izaerak alderatzen dituztenak ere (Oneplee 2008, El Dakhs 2018, besteen artean). Aldizkari ospetsuenetan, interes handiagoa ikusten da emaitzen atalean sarrerarenean baino. Era berean, adituek eta neofitoezko testu horien idazketa premisa beretatik jorratzen duten ikertzeko interesa ere badago (Menezes 2013, Ansarifar *et al.* 2018, besteen artean).

Hala ere, azken hamarkadetan gorabidean dauden azterlanen artean kokatzen dira ezagutza-eremu desberdinetan sortzen diren *abstracten* arteko alderaketak egiten dituztenak. Azterlan horiek Hizkuntzak Berariazko Helburuetarako izeneko adarretik sortzen dira (*Languages for Specific Purposes*), eta hainbat diziplinako *abstracten* deskribapenean eta/edo konparazioan jartzen dute interesa. Onartzen da komunitate akademiko bakoitzak bere interakzio-moduak dituela eta, beraz, desberdintasunak egongo direla adar baten eta besteen artean (Samraj 2008, Ibáñez *et al.* 2015, besteen artean). Ikerketa-ildo horren barruko azterlanek hainbat alderditan jartzen dute arreta. Kasu batzuetan, diziplina bakar baten berezitasunak aztertzen dira (Hizkuntzalaritza - Lores 2004); beste batzuetan, berriz, elkarrengandik hurbilago (Hizuntzalaritza Aplikatua eta Ingelesa Bigarren Hizkuntza -Al-Shujairi *et al.* 2016) edo urrunago (Hizkuntzalaritza Aplikatua, Kimika Aplikatua eta Matematika Aplikatura - Darabad 2016) dauden diziplinen arteko konparazio-azterketak egin ohi dira. Azterlan horietan ikusten da arlo bereko testuen artean ezaugarri ohikoagoak daudela, baina, bestela ere, jokabide homogeenak daudela.

Gizarte Zientzien eta Giza Zientzien arloei dagokienez, badirudi ez dagoela arlo handi horien ezaugarriak orokorrean jorratzen dituen azterlanik. Aitzitik, badira ikerketa batzuk jakintza-arlo horietako azpi-diziplinetako *abstracten* azterketan zentratzen direnak. Egia da garatu diren lan guztiak ezin direla laburbildu, baina azken bost urteetako lan garrantzitsuenetako batzuetan jarriko dugu fokua, hainbat azpi-diziplinako emaitzen ikuspegi orokorra lortzeko.

Humanitateei dagokienez, badirudi Hizkuntzalaritzak jaso duela arreta gehien. Khansari *et al.*-ek (2016) Hizkuntzalaritzako aldizkari ingelesezko 130 *abstract* aztertu dituzte, jokabide homogeenorik ba al dagoen ikusteko. Hala, batetik, egiaztatzen dute *abstract* gehienek sarrera-metodoa-emaitza-eztabaida egitura jarraitzen dutela, eta, bestetik, 'sarrera' atalak duela pisurik handiena. Izan ere, batzuetan behin baino gehiagotan agertzen da atal hori. Can *et al.* (2016) ez datoz bat azken ideia horrekin; izan ere, ikusten dute *English for Specific Purposes* aldizkarian 2011 eta 2013 artean izandako 50 *abstractetan*, lehenetsunez, helburuei, metodologiari eta emaitzei erreparatzen zaiela. Aitzitik, lanen erdiek ez dituzte sarrera eta eztabaida atalak. Azkenik, eta horretan bat

datoz Khansari *et al.* (2016) eta Can *et al.* (2016), mugimenduen hurrenkeran irregulartasunak hautematen direla ikusi dute, oro har.

Literaturaren kasuan, Tankók (2017) eragin handiko nazioarteko aldizkarietako 135 testu berrikusi zituen eta egiaztatu zuen, oro har, *abstracten* egitura eta artikuluaaren sarrerena gainjarri egiten direla. Halaber, egileek helburuei eta emaitzei lehenetsuna ematen dietela eta gaia lan-esparru baten barruan aurkezten saiatzen direla egiaztatu du. Zentzu horretan, badirudi bat egiten dutela *Modern Language Association* estilo liburuak (MLA 2016) *abstract-en* ezaugarriei buruz dioenarekin (Gibaldi 2008). Azkenik, arloko patroï propiorik ez dagoela ondorioztatuz, oso kritiko agertzen da egilea; esaten du Natur Zientzien esparruko ekoizpenei balio sozio-ekonomikoa ematen zaienez, horrek eramaten dituela esparru horretako autoreak ekoizpen zientifikoen laburpenetan ere patroï eraginkorrek jarraitza eta horrelakorik ez dela gertatzen literaturaren eremuan.

Hizkuntzalaritza Literaturarekin alderatzen duen azterlan berri batean (Bhatti *et al.* 2019) ondorioztatzen denez, ez dago alde adierazgarririk bi diziplinetako *abstracten* artean. Maila makro edo estrukturalen, bi kasuetan gaia kokatzen da eta asmoa eta emaitzarik garrantzitsuenak azpimarratzen dira. Badirudi gainerako mugimenduek ez dutela hainbesteko pisurik.

Gizarte Zientziei dagokienez, Blancoren (2017b) lana Venezuelako Hezkuntzako zortzi aldizkaritan gaztelaniaz argitaratutako *abstracten* azterketan zentratzen da. 75 laburpenetako mugimenduen analisiak dio laburpen gehienek hiru mugimendu edo gehiago dituztela eta ‘emaitzak’ kategoriaz aztertutako testuen erdietan bakarrik agertzen dela; eta, oro har, esku-hartze profesionala gauzatu duten lanak direla. Halaber, ikusten da ez dagoela estruktura nagusirik, eta, beraz, aldizkarien laburpenen arteko portaerak heterogeneoak direla. Egile horrek berak (Blanco 2017a) 254 laburpenen konparazio diakronikoa egin zuen 1997 eta 2016 artean, Venezuelako hezkuntza-aldizkarietan berriz ere. Azterlanean ikusten da egituretan gero eta egonkortasun handiagoa dagoela eta ‘emaitzak’ mugimenduaren presentzia gero eta handiagoa dela.

Quintanillak (2016) egindako lanak ere hezkuntza arloa du ardatz eta, horretarako, arlo horretako aldizkari baten 50 testuren egitura aztertu du. Berak ere jokabide heterogeneoa ikusten du eta komunitate akademiko-zientifiko honen barruan gaitasun diskurtsiboak indartzeko beharra azpimarratzen du. Beste diziplina bati begira jarrita, badirudi homogeneotasuna badagoela politikari buruzko lanen kasuan. Eredu honetako Irango aldizkarietako 120 testuren azterketak soilik ‘helburuak’ eta ‘metodoa’ atalen agerpenerako joera erakusten du. Beste hiru mugimenduek askoz maiztasun txikiagoa dute (Seyed eta Shamala, 2019).

Laburbilduz, berrikuspen teoriko honetan *abstractak* testu-genero akademiko gisa duen garrantzia nabarmendu dugu. Gainera, testu horien egiturazko ezaugarriak ikuspegi desberdinetatik aztertzeko interesa egiaztatu ahal izan dugu. Aztertutako azterlanetan, ezagutza-eremu batetik bestera zer desberdintasun dauden ikusi dugu. Berrikusi ditugun ikerketetan egiaztatu da Giza eta Gizarte Zientzien kasuan ez dagoela jokabide homogeneorik, ez ezagutza-eremu horien artean eta ez ezagutza-eremu horietako bakoitzaren baitan idazten

diren laburpenetan. Hala ere, horiek guztiak beste hizkuntza batzuetan zentratu diren ikasketak dira, eta, esan bezala, hizkuntza faktore erabakigarria da testu-genero hori egituratzeko orduan. Interesgarria da, beraz, euskararen kasuan zer gertatzen den ikustea.

III.- METODOLOGIA

3.1. Helburua eta ikerketa-galderak

Esku-artean daukagun lana ikerketa zabalagoko baten parte da. Ikerketa horren helburu nagusia euskara akademikoaren ezaugarriak ezagutzeko da, diskurtsiboak zein linguistikoak. Horretarako, azpi-helburuetako bat euskarazko *abstracten* azterketa diskurtsiboa egitea da, hau da, *abstract* horiek osatzen dituzten mugimendu erretorikoak aztertzea. Kasu honetan, aurkezten den ikerketa esplorazio-ikerketa bat da; testuen azterketa egin da, Giza-Zientzietako laburpenen eta Gizarte-Zientzietako laburpenen artean desberdintasunik ba al dagoen ikusi ahal izateko.

Helburu hori lortzeko bi ikerketa-galdera mahaigaineratu ditugu:

1. Zeintzuk dira *Uztaro* aldizkariak argitaratutako euskarazko *abstracten* ezaugarri diskurtsiboak? Alderik ba al dago Giza Zientzietako eta Gizarte Zientzietako *abstracten* artean?
2. Zer egitura dauzkate *abstract* horiek osatzen dituzten mugimendu erretorikoak? Alderik ba al dago Giza Zientzietako eta Gizarte Zientzietako *abstracten* artean?

3.2. Lagina

Ikerketa hau egiteko *Uztaro* aldizkarian jarri dugu begia. Kasu honetan gure helburua bi ezagutza-eremutako lanen euskarazko laburpenak alderatzea izaki, horretarako abagune aproposa eskaintzen du *Uztarok*. Bere webgunean jasota dagoen moduan, euskara hutsezko aldizkari zientifikoa da eta Giza eta Gizarte Zientziei buruzko artikulua argitaratzen dira (<https://www.uztaro.eus/>). Horrenbestez, euskarak eremu zientifikoan daukan presentzia aztertzeke egingadako oinarritzko ikerketa bat gauzatzeko erabilitako corpusa kontuan hartuta (Boillos eta Bereziartua 2020), eskuartean dugun lana egiteko ezaugarri egoikiak eskaintzen zituen *Uztaro* aldizkariak eta hori izan da aukeratzeko arrazoia.

Uztaro aldizkaria Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) baitan sortu zen 1990. urtean. 1996. urtera arte aldizkariaren hiru zenbaki kaleratu izan ziren urtean, baina hortik aurrera urtean lau zenbaki argitaratzen hasi ziren, hiruhilabetekari bihurtuz. Aldizkariaren webgunean zehazten denez, zenbaki bakoitza 125 orrialdekoa da batez beste.

Aldizkariak betetzen dituen kalitate-adierazleei dagokienez, hainbat zerrenda, aurkibide eta datu-basetan dago, esaterako hauetan: Erih PLUS, CIRC (C),

DICE (C), RESH (C) eta Latindex v.1.0n irizpide guztiak betetzen ditu (33tik 33). Ondorioz, bere lanak kanpo-ebaluazio itsu bikoitzarekin berrikusten dituen aldizkari bat da, eta kanpoko erredakzio-kontseilua du. Ezaugarri guzti horiek direla eta, euskaraz argitaratzen diren aldizkarien artean kalitate indize onenak dituzten aldizkarien artean aurkitzen da (Boillos eta Bereziartua 2020). Arrazoi horiek guztiak direla-eta, aldizkari hau testuinguru egokia da arlo horietan kalitatezko lan zientifikoan abstract horiek aztertzeko.

Ikerketa hau egiteko lagina *Uztaro* aldizkarian 2015-2019 urteen artean argitaratu diren lanen euskarazko laburpenek osatu dute, guztira 99 *abstract*. Hauek dira zehazki lagin hori aukeratu izanaren arrazoiak: batetik, euskarazko argitalpen zientifikoan kopurua gorantz doa azken urteetan (Boillos eta Bereziartua 2020) eta ahalik eta testurik berrienak aztertzea erabaki da; eta, bestetik, artikulu zientifikoan laburpenen egitura diskurtsiboa ikertu duten beste azterlanetako laginen kopuruak kontuan hartu dira eta alderagarri izateko aukera ematen duen kopurua aztertzeko hautua egin da.

Laburpen horiek ezagutza-eremuka banatu ditugu eta, horretarako, bi iturri hartu ditugu erreferentziatzat: (1) *Uztaro* aldizkariak zehazten du argitaratutako lan bakoitza zein diziplinatan kokatzen duen; eta (2) ezagutza-eremu bateko eta besteko diziplinak bereizteko Unibasq-eko sailkapena hartu dugu kontuan. 1. taulan ikus dezakegu, batetik, urte bakoitzean guztira zenbat lan argitaratu diren; eta, bestetik, urte bakoitzean ezagutza-eremu bakoitzeko zenbat lan argitaratu diren:

I. TAULA. 2015-2019 URTE-TARTEAN *UZTARO* ALDIZKARIAN ARGITARATU ZIREN LANEN ETA EUSKARAZKO ABSTRACTEN KOPURUAK EZAGUTZA-EREMUKA ETA URTEZ URTE (N ETA %). ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

Urteak	Artikuluak guztira	Giza-Zientzietako abstractak		Gizarte-Zientzietako abstractak	
		n	%	n	%
2015	21,0	5,0	23,8	16,0	76,1
2016	18,0	5,0	27,7	13,0	72,2
2017	20,0	8,0	40,0	12,0	60,0
2018	19,0	1,0	5,2	18,0	94,7
2019	21,0	7,0	33,3	14,0	66,6
Guztira	99,0	26,0	26,2	73,0	73,7
Batezbestekoak	19,8	5,2	—	14,6	—

Taulak erakusten duenez, 2015-2019 urteen artean guztira 99 lan argitaratu ziren *Uztaro* aldizkarian, urtean ia 20 lan (19,8) batez beste. Ezagutza-eremu

bati eta besteari begira jarrita, Giza Zientzietako lanen bateko hiru dira Gizarte Zientzietakoak (% 26,2 eta % 73,7, hurrenez hurren).

Uztaron beren lana argitaratu nahi duten egileentzako oharrak agertzen dira webgunean eta hau da lan horien laburpenei buruz zehazten dena: «Lanarekin batera, 100 eta 150 hitz arteko laburpena ere igorriko da, euskaraz eta ingelesez, eta izenburuaren ingelesezko itzulpena» (<https://www.uztaro.eus/>).

3.3. Analsiaren prozedura eta deskribapena

Orri hauetan aurkezten dugun ikerketa egiteko jarraitu ditugun urratsak deskribatuko ditugu jarraian. Lehenik eta behin, aztertu ditugun laburpenen corpusa osatu dugu, ezagutza-eremu bakoitzeko laburpenak bereiziz. Behin hori egindakoa, ikerketa-galdera bakoitzari erantzuteko berariazko analisiak egin ditugu.

Lehenengo ikerketa-galderari erantzuteko, testuen analisi kuantitatiboa egin dugu. Testu bakoitza ANALHITZA prozesadore informatikoarekin aztertu dugu (Otegi, Imaz, Díaz de Ilarraza, Iruskieta eta Uria 2017) eta hainbat elementuren datu estatistiko deskribatzaileak kalkulatu ditugu: *abstract* bakoitzeko hizkiak, hitzak edo tokenak, lema¹ motak, eta esaldiak. Giza Zientzietako eta Gizarte Zientzietako testuen arteko alderaketa egiteko t-student kalkuluak egin ditugu. Analisi horiek egiteko SPSS 18 programaz baliatu gara. Orain arte ez dira gisa horretako analisiak egin izan diziplina honetan eta ez daukagu aukerarik beste ikerketekin alderaketak egiteko, baina diziplinartekotasunari balioa ematen zaion garaiotan eta prozesadore informatikoak eskura izanda, etorkizunean gai hau aztertzeke egin ahal diren beste ikerketa batzuetarako abiapuntu edo helduleku bat ezarri nahi izan dugu.

Bigarrego ikerketa-galderari erantzuteko corpuseko laburpenak osatzen dituzten mugimendu erretorikoak analizatu ditugu, atal teorikoan aurkeztu dugun Hylandek (2000) proposatutako eredu oinarri hartuta. Horretarako hiru fenomeno aztertu ditugu: (1) laburpenetan agertzen diren mugimenduak zeintzuk diren; (2) mugimendu bakoitza zer maiztasunetan agertzen den; eta (3) laburpenetan mugimendu horiek zer hurrenkeratan agertzen diren (*flow of movements*).

Egin diren analisisetan aztertzaileen arteko fidagarritasuna bermatzeko (*inter-rater reliability*) neurriak hartu dira. Autore bakoitzak modu independentean egin ditu analisiak eta ondoren emaitzak erkatu dira; bat-etortzerik ez zegoen kasuetan, kasu horiek berriro aztertu dira.

¹ Hizkuntzalaritzaren baitan lexikoari dagokio: unitate semantikoa, hiztegi batetako sarrera bakoitza.

IV.- EMAITZAK

1. ikerketa-galdera: Zeintzuk dira *Uztaro* aldizkariak argitaratutako eskarazko *abstracten* ezaugarri diskurtsiboak? Alderik ba al dago Giza Zientzietako eta Gizarte Zientzietako *abstracten* artean?

Lan honen lagina hobeto ezagutzeko, lehenik eta behin, *abstracten* analisi kuantitatibo orokorra egin da. Azterketa horren emaitzak 2. taulan bildu ditugu.

2. TAULA. CORPUSEKO TESTUEN EZAUGARRI KUANTITATIBOEN BATEZBESTEKOAK ETA DESBIDERATZE ESTANDARRAK EZAGUTZA-EREMUKA. ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

	Giza Zientziak (n = 26)		Gizarte Zientziak (n = 73)	
	Batezbestekoa	SD	Batezbestekoa	SD
Hizki kopurua	716,81	215,813	723,23	173,770
Hitz/token kopurua	96,04	30,880	94,92	23,846
Lema motak	68,04	18,264	67,37	14,773
Esaldi kopurua	5,12	2,046	5,44	1,958
Hitz/esaldi batezbestekoa	19,35	4,534	18,07	4,817

Azterlan honetako corpusaren baitako Giza Zientzietako laburpenak batez beste 716,81 hizkiz osatu dira (SD=215,8), eta Gizarte Zientzietakoak, berriz, 723,23 hizkiz (SD=173,7). Batzuen eta besteen desbideratze estandarrek adierazten dute batezbesteko horretatik aldentzen diren testuak ere badaudela, beraz, testuen luzera ez da homogenea corpuseko idatzien artean, ez Giza Zientzietako laburpenetan eta ez Gizarte Zientzietakoetan.

Testuetako hitz kopuruekin ere joera berbera gertatzen da: Giza Zientzietako laburpenak batez beste 96,04 hitzez osatu dira (SD=30,8) eta Gizarte Zientzietakoak 94,92 hitzez (SD=23,8). Aztertutako laburpenetako hiztegiaren aniztasunari erreparatuta, lema moten kopurua batez beste 68,04 da Giza Zientzietako laburpenetan eta 67,37 Gizarte Zientzietakoetan.

Esaldiei begira jarrita, Giza Zientzietako laburpenek batez beste 5,12 esaldi daukate (SD=2,04); Gizarte Zientzietakoek 5,44 (SD=1,9). Eta esaldi horietako bakoitzak 19,3 hitz (SD=4,5) biltzen ditu Giza Zientzietako laburpenetan; 18,07 hitz (SD=4,8) Gizarte Zientzietakoetan.

Orain artean ezagutza-eremu bateko eta besteko emaitzak bereizita aurkeztu ditugu eta, begiratu batean, badirudi batzuetatik besteetara alderik ez dagoela. Hala ere, alde hori estatistikoki esanguratsua den ikusi dugu t-student kalkulatu eta emaitzak 3. taulan jaso ditugu:

3. TAULA. CORPUSEKO TESTUETAN BI EZAGUTZA-EREMUETAKO TESTUEN EZAUGARRI KUANTITATIBOEN ALDERAKETA: LAGIN INDEPENDENTEENTZAKO T-STUDENT PROBAREN EMAITZAK. ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

	Levene-ren proba	Esanguratsutasun laterala
Hizki kopurua	,216	,880
Hitz/token kopurua	,161	,850
Lema motak	,334	,853
Esaldi kopurua	,872	,323
Hitz/esaldi batezbestekoa	,668	,241

Levene-ren proba eginda lortutako datuek erakusten dute ezagutza-eremu bateko eta besteko datuen artean ez dagoela desberdintasun estatistiko esanguratsurik. Eta esanguratsutasun lateralari buruzko datuek ere gauza bera berresten dute. Hau da, ez dago diziplina bakoitzaren ezaugarri bereizgarririk.

2. ikerketa-galdera: Zer egitura dauzkate *abstract* horiek osatzen dituzten mugimendu erretorikoek? Alderik ba al dago Giza Zientzietako eta Gizarte Zientzietako *abstracten* artean?

Azterlan hau egiteko erabili dugun corpuseko *abstracten* mugimendu erretorikoen egiturei buruz hitz egin aurretik, mugimendu horiei buruzko zenbait datu emanaz hasiko gara. Lehenik eta behin, corpusean identifikatu ditugun mugimenduei buruz hitz egingo dugu. Ondoren, corpuseko laburpenak zenbat mugimenduz osatuak dauden ikusiko dugu. Segidan, mugimendu bakoitza zenbat testutan aurkitu dugun esango dugu. Eta, amaitzeko, corpuseko laburpenetan aurkitu ditugun mugimendu-egiturei buruzko datuak aurkeztuko ditugu.

Aurrez esan bezala, azterketa hau egiteko Hylanden (2000) proposamena hartu dugu oinarri. Hylandek bost mugimendu prototipiko proposatzen ditu *abstractak* osatzeko eta gure corpusean bost mugimendu horiek aurkitu ditugu, baina proposamen horretatik kanpo dauden joerak ere identifikatu ditugu.

Lehenik, Hylandek proposatzen dituen mugimenduez gain beste mugimendu bat agertzen dela ikusi dugu, *Antolaketa* izenez bataiatu duguna. Mugimendu horretan ondoren aurkeztu den lanaren egitura deskribatzen da, baina ez da edukien berri ematen. Corpuseko testuen arteko 10etan (% 10,1; Giza Zientzietako testuen arteko % 23,07 eta Gizarte Zientzietako testuen arteko % 5,4) agertzen da *Antolaketa* izendatu dugun mugimendua. Eta, kasu gehienetan, Hylanden proposameneko beste mugimendu batzuekin konbinatuta agertzen da. Hona hemen horren adibide den testu bat:

(P) Egungo erregimen demokratikoen krisia oinarri harturik, artikuluko honek Platonen pentsamendu politikoak eduki dezakeen gaurkotasan eta garrantziaz egiten du gogoeta. (Ant) Lehenik eta behin, egungo egoera politikoaren

gainbegiratu orokor bat eskaintzen du, Platonen teoria politikoa eta, oro har, demokratikoa ez den pentsamendu politiko oro era arinean gaitzesten direla nabarmenduz, totalitaristak direlako aitzakiarekin. Jarraian, atenastarraren teoria politikoaren oinarri teorikoak agerian uzten dira, ostera ideologia demokratikoaren —Periklesen garaikoaren zein gaur egungoaren— oinarriekin alderatuta erabat bestelakoak direla agerian utziz. Bi ikuspegiak proposatutako ildoak desberdina da, hain zuzen ere, haien printzipioak erabat bestelakoak direlako. Azkenik, analisiaren ondorio moduan, Platonen, baina baita demokratikoak ez direnen, hausnarketa politikoak tentuz aztertzea ikuspegi demokratikoa defendatzen dutenei arrunt mesedegarria suerta dakiekeela nabarmentzen da, batez ere, teoria demokratikoaren oinarriak birpentsatzeko aukera eskaintzen baitu. [GZ.17.07]

Bigarrenik, testu batzuk Hylanden proposameneko zenbait mugimenduz osatuta daude, baina mugimendu horietakoren bat errepikatu egiten da. Hori gertatzen da corpuseko testuen arteko 11tan (% 11,1). Ezagutza-eremu bakoitzeko testuetan gertatzen dena erakusten du 4. taulak:

4. TAULA. CORPUSEKO TESTUETAN ERREPİKATUTAKO MUGIMENDUAK EZAGUTZA-EREMUKA (N ETA %). ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

	Giza Zientziak		Gizarte Zientziak	
	n	%	n	%
P mugimendua errepikatuta	3	11,5	5	6,8
M mugimendua errepikatuta	0	0	2	2,7
I mugimendua errepikatuta	0	0	1	1,3
Errepikatutako mugimenduak guztira	3	11,5	8	10,9

Ikusten dugunez, mugimenduak errepikatu diren kasu gehienetan P (*Helburua*) mugimendua izan da errepikatu dena. Giza Zientziei dagokienez, hori gertatu den 3 kasuetan (% 11,5); Gizarte Zientziei dagokienez, errepikapenak egon diren 5 kasuetan (% 6,8). Baina Gizarte Zientzietako bi testutan M (*Metodoa*) mugimendua izan da errepikatu dena eta beste kasu batean I (*Sarrera*) mugimendua. Mugimenduak errepikatu diren testu baten adibidea ikus dezakegu segidan:

(P) Artikulu honen helburua Mikel Laboaz esparru zientifikoan idatzi denari buruzko ikuspegi orokorra ematea da, arreta berezia eskainiz kantariaren alde esperimentalaz esaten denari. (M) Horretarako, euskal komunitate zientifikoaren datubasea, Inguma, hartuko da erreferentzia nagusitzat eta bertan biltzen diren Mikel Laboari buruzko euskarazko lanen analisisa egingo da. (P) Analisis bibliografiko honen bidez, Laboak euskal kulturgintzari egindako

ekarpen berritzailea azaleratu asmo da, bere musikagintzaz orain arte egin diren hausnarketak osatuz. [GR.19.07]

Hirugarrenik, testu batzuk I (*Sarrera*) mugimendua bakarrik daukate. Hori gertatzen da corpuseko 6 testutan (% 6,06), Giza Zientzietako 2 eta Gizarte zientzietako 4; esate baterako, hemen:

(I) Kyotoko Protokoloa ordezkaturiko duen akordio loteslea lortzeko negoziazioak 2007an hasi ziren. 2009ko Kopengageko Konferentziaren porrotaren ondoren, negoziazioak bertan behera geratu ziren, eta ez zen ia aurrerapenik eman hurrengo bileretan. EBren lidergoa klima-aldaketaren aurkako borrokan, mundu-aliantza batean ahalik eta herrialde gehien bateratzeko ahaleginetan, ahuldu egin zen, AEBk gero eta protagonismo handiagoa hartu zuelako —jarrera pasiboarekin eta oztopatzailearekin—, bai eta Txinak ere. Nahiz eta EBk berriro sustatu zituen negoziazioak, badirudi Parisko Akordioa posible izan zela AEBren eta Txinaren inplikazio handiagatik; horrek aldi berean dakar askok zalantzan jartzea benetan emaitza arrakastatsua izango dela. [GR.17.08]

Corpuseko testuen mugimendu-kopuruari dagokionez, esan bezala, Hylan-dek 5 mugimenduz osatutako egitura proposatu zuen. Gure kasuan, mugimendu bakarraz osatutako testuetatik hasi eta 5 mugimendu edukitzeraino iristen diren testuak identifikatu ditugu. 5. taulan aurkezten da informazio hori²:

5. TAULA. CORPUSEKO TESTUEN BAITAN DAUDEN MUGIMENDU KOPURUAK ETA HORIETAKO BAKOITZA ZENBAT TESTUTAN IDENTIFIKATU DUGUN (N ETA %). ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

Mugimendu kopurua	Guztiak		Giza-Zientziak		Gizarte-Zientziak	
	n	%	n	%	n	%
1	7	7,07	3	11,5	4	5,4
2	26	26,2	7	26,9	19	26,0
3	39	39,3	13	50,0	26	35,0
4	24	24,2	2	7,6	22	30,1
5	3	3,03	1	3,8	2	2,7
Guztira	99	100,0	26	100,0	73	100,0


Ikus dezakegunez, corpuseko testu guztiak batera hartzen baldin baditugu, laburpen gehienak 3 mugimenduz osatutakoak dira (% 39,3); horien atzetik 2 mugimenduz (% 26,2) eta 4 mugimenduz (% 24,2) osatutakoak daude; eta bakanak dira mugimendu bakarraz (% 7,07) edo bost mugimenduz (% 3,03) osatutakoak.

² Testu berean errepikatzen diren mugimenduak ez ditugu birritan kontatu, mugimendu bakoitza zenbat laburpenetan agertu den, baizik.

Baina ezagutza-eremu bakoitzari erreparatzen badiogu, Giza Zientzien esparruko laburpenen erdia (% 50) da hiru mugimenduz osatutakoa eta beste laurdena pasa (% 26,9) bi mugimenduz osatutakoa; Gizarte Zientzien esparruko laburpenetan banaketa berdintsuagoa da 2, 3 eta 4 mugimenduz osatutako testuen artean (% 26, % 35 eta % 30,1, hurrenez hurren).

Mugimendu bakoitzaren agerpenari begira jarrita, 1. grafikoak ematen du datu horien berri:

1. GRAFIKOA. MUGIMENDU BAKOITZAREN AGERPENA CORPUSEKO TESTUETAN EZAGUTZA-EREMUKA (%). ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.



Corpuseko testuetan gehien agertu den mugimendua P (*Helburua*) izan da, bai Giza Zientzietako laburpenetan (% 90,4) eta bai Gizarte Zientzietako laburpenetan (% 80,7). Horren atzetik presentzia gehien daukatenak M (*Metodoa*) eta I (*Sarrera*) mugimenduak dira, bai ezagutza-eremu batean eta bai bestean testuen erdia baino gehiagotan agertzen dira. Pr (*Emaitzak*) mugimendua etorriko litzateke jarraian, eta bere presentzia altuagoa da Gizarte Zientzien eremuko testuetan (% 49,3) Giza Zientzietakoetan baino (% 26,9). Gutxien agertu diren mugimenduak *Antolaketa* eta C (*Ondorioak*) izan dira bi ezagutza-eremuetan. Hala ere, bi mugimendu horien agerpenkopuruak alderantzizkatu egiten dira bi ezagutza-eremuetan: C (*Ondorioak*) mugimenduak presentzia handiagoa dauka Gizarte Zientzietan (% 21,9) Giza Zientzietan (% 7,6) baino; eta *Antolaketa* mugimendua gehiago agertzen da Giza Zientzietako testuetan (% 23,07) Gizarte Zientzietakoetan (% 5,4) baino.

Mugimenduei buruzko informazio orokorra eman dugu orain artean, baina mahaigaineratu dugun ikerketa-galderari erantzuna ematen ahaleginduko gara ondorengo lerroetan. Hylanden I-P-M-Pr-C egitura prototipikoari dagokionez, gure corpuseko 3 testutan aurkitu ditugu 5 mugimenduok batera: Giza Zientzietako testu batean (% 3,8) eta Gizarte Zientzietako bi testutan (% 2,7). Hala ere, gure corpusean 5 mugimendu horiek dauzkaten testu guztietan ez diete mugimendu horiek Hylandek proposatutako hurrenkerari jarraitzen. Mugimenduak hurrenkerara zehatz horretan josita dauzkaten testuak bi izan dira (% 2,02), eza gutza-eremu bakoitzean bana (Giza Zientzietako testuen arteko % 3,8n eta Gizarte Zientzietako testuen arteko % 1,3n). Hona hemen horren adibide den testu bat:

(I) Portaera agresiboan eragiten duten faktoreak ugariak dira: inguruneak, genetikoak, fisiologikoak eta sozialak. (P) Ikerketa honen helburua da aztertzea nola eragiten duten zenbait aldagai psikologiko eta biologikok eskola-adineko neska-mutilen jokabide agresiboan, kontuan hartuz sexuen arteko ezberdintasuna. (M) Horretarako, luzera erdiko bi fasehun ikerketa egin zen. Bi faseetan neska-mutilen portaera oldarkorra neurtu eta listulaginak bildu ziren hormona-mailak aztertzeko. Horrez gain, zenbait aldagai psikologiko analizatu ziren. (Pr) Emaitzek erakutsi zuten, aldagai psikologiko (enpatia eta temperamentua) eta biologikoen (testosterona eta kortisola) elkarreraginak neska-mutilen jokabide agresiboa azaldu zuen, baina elkarreragina desberdina izan zen bi faseetan. Hau da, faktore psikologiko eta biologikoen eragina jokabide agresiboan desberdina izan zen adinaren arabera. (C) Emaitza hauek agerian jartzen dute aldagai psikologiko eta biologikoen arteko elkarreragina ikertzearen garrantzia portaera agresiboa azaltzeko. [GR.18.07]

Hala ere, testu guztiak aztertu ondoren nabarmentzen den ezaugarria heterogeneotasuna da, 39 mugimendu-egitura identifikatu ditugu guztira. Bi eza gutza-eremuetan agertzen diren 9 mugimendu-egitura behatu ditugu eta, horiez gain, Giza Zientzietako laburpenen artean beste 9 eta Gizarte Zientzietako testuetan beste 21. Mugimendu-egitura horiek zeintzuk izan diren eta horietako bakoitza zein maiztasunekin agertu den ikus daiteke 6. taulan.

Esan dugun moduan, Hylandek proposatutako mugimendu-hurrenkerari jarraitzen dioten laburpenak bakanak dira gure corpusean, baina identifikatu ditugun egituren artean proposamen horretara gehien hurbiltzen den egitura bat (I-P-M-Pr) Gizarte Zientzietan gehien erabili diren egituren artean dagoela ikusi dugu (testuen arteko % 13,6n). 7. taulan aurkezten ditugu corpuseko testuetan maizen erabili diren mugimendu-egiturak:

6. TAULA. CORPUSEKO TESTUETAN IDENTIFIKATUTAKO MUGIMENDU-EGITURAK EZAGUTZA-EREMUKA (N ETA %). ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

	Egiturak	Mugimendu kopurua	Giza Z.		Gizarte Z.		
			n	%	n	%	
1	I	1	2	7,6	4	5,4	
2	Ant		1	3,8	0	0,0	
3	I-P	2	3	11,5	9	12,3	
4	P-M		2	7,6	2	2,7	
5	P-Ant		1	3,8	0	0,0	
6	P-I		0	0,0	3	4,1	
7	P-C		0	0,0	1	1,3	
8	M-Pr		1	3,8	0	0,0	
9	I-P-I		0	0,0	1	1,3	
10	P-M-P		0	0,0	2	2,7	
11	P-I-P	3	0	0,0	1	1,3	
12	I-P-M		4	15,3	6	8,2	
13	I-P-C		1	3,8	1	1,3	
14	I-P-Ant		0	0,0	1	1,3	
15	I-P-Pr		0	0,0	3	4,1	
16	I-Pr-C		0	0,0	1	1,3	
17	I-M-P		0	0,0	1	1,3	
18	I-M-Pr		0	0,0	1	1,3	
19	I-M-Ant		1	3,8	0	0,0	
20	P-M-Pr		2	7,6	6	8,2	
21	P-M-Ant		1	3,8	0	0,0	
22	P-M-C		0	0,0	2	2,7	
23	P-I-Pr		0	0,0	1	1,3	
24	P-Ant-M		0	0,0	1	1,3	
25	I-P-M-P		4	1	3,8	1	1,3
26	P-M-P-Ant			1	3,8	0	0,0
27	P-M-P-Pr	1		3,8	0	0,0	
28	M-P-M-Pr	0		0	1	1,3	
29	I-M-P-Pr	1		3,8	0	0,0	
30	I-P-M-Pr	1		3,8	10	13,6	

	Egiturak	Mugimendu kopurua	Giza Z.		Gizarte Z.	
			n	%	n	%
31	I-P-Pr-C	4	0	0,0	1	1,3
32	I-P-M-C		0	0,0	1	1,3
33	I-Ant-M-Pr		0	0,0	1	1,3
34	P-M-Pr-C		0	0,0	7	9,5
35	P-Ant-M-P		1	3,8	0	0,0
36	P-I-P-M-Pr	5	0	0,0	1	1,3
37	M-P-M-Pr-Ant		0	0,0	1	1,3
38	I-P-M-Pr-C		1	3,8	1	1,3
39	I-M-P-Pr-C		0	0,0	1	1,3
			26	100	73	100

7. TAULA. CORPUSEKO TESTUETAN MAIZEN AGERTZEN DIREN MUGIMENDU-EGITURAK EZAGUTZA-EREMUKA. ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

Testu kopurua	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak
> % 10	I-P	
	I-P-M	I-P-M-Pr
% 5-10	I	
	P-M-Pr	
	P-M	I-P-M
		P-M-Pr-C

Ikus dezakegunez, bi ezagutza-eremuetako testuen arteko % 10 baino gehiagotan erabili da I-P mugimendu-egitura; eta, horrekin batera, kopuru beretsuan erabili dira Giza Zientzietan I-P-M egitura eta Gizarte Zientzietan I-P-M-Pr egitura. Corpuseko testuen arteko % 5-10 tartean erabili dira bi ezagutza-eremuetan I mugimendua eta P-M-Pr mugimenduak; eta testuen kopurutarte horretan erabili dira P-M mugimenduak Giza Zientzietan eta I-P-M nahiz P-M-Pr-C mugimenduak Gizarte Zientzietako testuetan. Gainontzeko egitura guztiak corpuseko testuen arteko % 5 baino gutxiagotan erabili dira (Giza Zientzietako testu bakarrean eta Gizarte Zientzietako 1, 2 edo 3 testutan).

Mugimendu erretorikoen egitura orokorreaz gain, horien baitako mugimendu bakoitzaren zenbait jokabide behatu ditugu eta nabarmentzekoak iruditu zaizkigun datuak aurkeztuko ditugu jarraian. Datu zehatzak 8. taulan daude ikusgai:

8. TAULA CORPUSEKO TESTUETAN IDENTIFIKATUTAKO MUGIMENDU BAKOITZAREN JOKABIDEARI BURUZKO DATUAK (AGERTUTAKO EGITURA KOPURUA ETA AGERPEN-POSIZIOAREKIN LOTUTAKO XEHETASUNAK, N ETA %). ITURRIA: AUTOREEK SORTUA.

Mugimenduak		Guztira n=39		Giza Zientziak n=18		Gizarte Zientziak n=30	
		n	%	n	%	n	%
I	Zenbat egituratan	23	58,9	9	50	21	70
	1. posizioan	19/23	82,6	8/9	88,8	17/21	80,9
P	Zenbat egituratan	32	82,05	14	77,7	27	90
	Lehen bi posizioetan	29/32	90,6	13/14	92,8	24/27	88,8
M	Zenbat egituratan	25	64,1	13	72,2	18	60
	P mugimenduaren atzetik	14/25	56	9/13	69,2	11/18	61,1
Pr	Zenbat egituratan	17	43,5	7	38,8	13	43,3
	Azken posizioan	11/17	64,7	5/7	71,4	8/13	61,5
C	Zenbat egituratan	9	23,07	2	11,1	9	30
	Azken posizioan	9/9	100	2/2	100	9/9	100
	Pr mugimendua ere egotea	5/9	55,5	1/2	50	5/9	55,5
Ant	Zenbat egituratan	10	25,6	6	33,3	4	13,3
	Azken posizioan	7/10	70	5/6	83,3	2/4	50

Mugimendu bakoitzak identifikatutako egituretan daukan agerpenari dagokionez, bi ezagutza-eremuetako testuetan desberdintasunak daude baina, proportzionalki, alde horiek bat egiten dute aurretik mugimendu bakoitzaren agerpenari buruz aurkeztu ditugun datuekin.

Mugimendu bakoitzaren posizioari dagokionez, berriz, ez dugu alde handirik sumatu ezagutza-eremu batetik bestera. I (*Sarrera*) mugimendua lehen posizioan agertzen da mugimendu-egituren arteko % 82,6n. P (*Helburua*) mugimendua lehen edo bigarren posizioan agertzen da egituren arteko % 90,6n. M (*Metodoa*) mugimendua P mugimenduaren atzetik kokatzen da mugimenduen erdia baino gehiagotan (% 56). Pr (*Emaitzak*) mugimendua azken posizioan agertzen da mugimenduen arteko % 64,7n. C (*Ondorioak*) mugimendua azken posizioan kokatzen da agertzen den kasu guztietan, baina agertzen den kasuetan ez dirudi beharrezkoa Pr mugimendua ere egotea (testuen arteko % 55,5ean

daude bi mugimenduak). Azkenik, *Antolaketa* mugimendua da ezagutza-eremuen artean desberdintasun gehien erakusten dituen, bai agertzen den egitura-kopuruari dagokionean (Giza Zientzietako egituren arteko % 33,3n eta Gizarte Zientzietako egituren arteko % 13,3n) eta bai mugimendu-egituretan azken posizioan kokatuta egoteari dagokionean (Giza Zientzietako egituren arteko % 83,3n eta Gizarte Zientzietako egituren arteko % 50en).

Laburbilduz, egindako analisei esker, bi diziplinetan sortutako *abstractak* nolakoak diren jakiteko ikuspegi orokorra lortu da. Horretarako, gai orokorrei erreparatu zaie (hitz-kopurua, letra-kopurua, etab.), baita Hylanden ereduak (2000) ezartzen dituen mugimenduei ere. Horrela, mugimenduen kopurua, kokapena, eremuen araberako egitura prototipikoak eta abar zehatz-mehatz deskribatu dira. Orain, lortutako emaitzak interpretatzeko unea da.

V.- EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Esku-artearen dugun lanean euskarazko idazketa akademikoari begira jarri gara. Eremu zabalak izaki, gure begirada artikulu zientifikoaren laburpenetara mugatu dugu. Zehazki, laburpen horien ezaugarri diskurtsiboen azterketa egin dugu, *abstract* horiek osatzen dituzten mugimendu erretorikoak aztertuz. Eta, horrekin batera, Giza Zientzietako laburpenen eta Gizarte Zientzietako laburpenen artean desberdintasunik ba al dagoen ikusi nahi izan dugu. Horrelako erkaketa-lanei dagokienez, euskal literatura akademikoaren gaineko ikerketak urriak baitira.

Lehenik eta behin, corpuseko testuen ezaugarri orokorrak ezagutzeko, *abstractak* hitz kopuruari erreparatu diogu. Kaplan *et al.*-ek (1994) ezaugarri hori aztertu zuten ingelesez idatzirik laburpenez osatutako corpus batean eta ikusi zuten, oro har, *abstractak* 100-250 hitzez osatuta zeudela; APA-k (2020) esaten duenez ere, laburpenen luzerak 250 hitz ingurukoa izan behar du. Azterlan honetan ikusi dugunez, gure corpuseko testuak datu horien gutxienekoak baino baxuagoak dira (96,04 hitz). Nahiz eta, desbideratze estandarrek adierazten digutenez, testu batzuk luzeagoak ere izan. Kontuan izan behar dugu horretan eragin zuzena daukan aldagai bat: aldizkariak egileentzako aurkezten dituen oharra. Kasu honetan, *Uztaro* aldizkariak eskatzen duenez, laburpenek 100-150 hitzez osatuta egon behar dute, beraz, corpuseko testuak, batez bestean, ozta-ozta iristen dira aldizkariak eskatzen duen gutxienera. Corpuseko laburpenetako esaldien luzerari dagokienez, ingelesezko idazketa akademiko aztertzearan MacDonald-ek (1990) ikusi zuen perpaus bakoitza 23,26 hitzez osatzen zela. Gure ikerketako datuak baxuagoak dira (Giza Zientzietako testuetan 19,35 hitz eta Gizarte Zientzietako testuetan 18,07 hitz), baina kontuan hartu behar dugu gure kasuan euskara izan dela testuetako hizkuntza eta MacDonald-en kasuan ingelesa. Horrenbestez, agerian geratzen da euskarazko testu akademikoek zer ezaugarri linguistiko dauzkaten aztertzeko beharra.

Lan honen helburu nagusia izan den bigarren galderari so egiteko, corpuseko laburpenen mugimendu erretorikoak behatu ditugu. Lanaren atal teorikoan gai honi buruzko hainbat ikerketa egin direla ikusi dugu. Gure kasuan, helburua

ez da izan aurrez egindako ikerketa baten erreplika egitea eta gure azterketako ikergaia, testuinguru eta hizkuntza ez datoz bat atal teorikoan aipatutako ikerketa horietakoekin, beraz, ikuspuntu zientifiko batetatik, ez luke zentzurik konparaketak egiteak. Hala eta guztiz ere, zenbait datu alderagarriak iruditu zaizkigu. Esate baterako, Khansari *et al.*-ek (2016) eta Can *et al.*-ek (2016) hizkuntzalaritzaren esparruan gauzatutako ikerketan, Blancok (2017b) Gizarte Zientzien eremuan burututako azterketan eta Quintanillak (2016) hezkuntzaren alorrean egindako ikerlanean ikusi zuten artikulu zientifikoetako laburpenetako mugimenduetan ez zegoela homogeneotasunik. Gure ikerketako emaitzarik nabarmenena ere hori da, heterogeneotasuna.

Gure corpora osatu duten testuei ezagutza-eremuka begiratuta, bai batean eta bai bestean mugimendu egituren kopuru oparoa ikusi dugu (Giza Zientzietako 26 testuetan 18 mugimendu-egitura, % 6,9; Gizarte Zientzietako 73 testuetan 30 mugimendu-egitura, % 4,1). Ezagutza-eremuen alderaketari dagokionez, Samrajek (2008) eta Ibáñez *et al.*-ek (2015), besteen artean, zioten eremu akademiko bakoitzak bere interakzio-moduak dituela eta desberdintasunak egon ohi direla esparru horietako bakoitzean ekoizten diren testuen artean; baina Bhatti *et al.*-ek (2019) hizkuntzalaritzako eta literaturako *abstractak* alderatu ondoren ikusi zuten ez zegoela alde adierazgarririk bi diziplinen artean. Gure kasuan ere hori da ikusi duguna, beraz, ezin dugu ondorioztatu testuen izaera zehazterakoan diziplinak aldagai gisa funtzionatzen duenik.

Lan honetan zehar behin baino gehiagotan aipatu dugunez, ikerketaren oinarritzat Hylanden (2000) proposamena hartu dugu. Baina proposamen horretatik bereziki aldentzen diren zenbait ezaugarri identifikatu ditugu eta nabarmentzekoak iruditu zaizkigu. Lehenengoz, Hylandek proposatzen dituen mugimenduez gain beste mugimendu bat identifikatu dugu eta *Antolaketa* izena eman diogu. Corpuseko testuen arteko % 10,1en agertzen da mugimendu hori. Bigarrenegoz, corpuseko testuen arteko % 6,06 I (*Sarrera*) mugimenduaz bakarrik daude osatuta. Hori gertatzearen atzean egon litezkeen arrazoien bila hasita, izan liteke laburpenak sortzen direnean testu-genero horren funtzioa zein den argi ez edukitzea. Alegia, teoriaren atalean esan bezala (Quintanilla 2016), laburpen baten funtzioa artikulu horren edukiei buruzko xehetasunak ematea da, irakurleak erabaki dezan artikulu osoa irakurri ala ez. Ikertzaile bat gai jakin bati buruzko bibliografiaren errebisioa egiten ari denean ezin du aurkitutako literatura guztia irakurri, eta galbahe lanak egiten ditu artikulu horietako bakoitzaren laburpenak. Baina laburpenak *Sarrera* mugimenduarekin bakarrik argitaratzen dituzten egileen kasuan, badirudi kezka dagoela ikerketaren funtsezko informazioa edo emaitzak aurreratzeke.

Hirugarrenegoz, corpuseko testuetan gehien agertu den mugimendua P (*Helburua*) izan arren, mugimendu-egiturak aztertu ditugunean ikusi dugu P mugimendurik ez daukaten egiturak % 17,9 direla. Horrek, honako zalantzak sorrazten dizkigu: helbururik adierazten ez duen laburpen batek betetzen al du bere funtzioa? Alegia, bere helburu komunikatiboa betetzen al du? Berriro ere aurreko paragrafoan adierazi dugun ideia garamatza honek.

Orain arte esandako guztiaren harira hainbat hausnarketa orokor bururatu zaizkigu. Hasteko, interesgarria izango litzateke ikerketa honetako emaitzak

testuinguru berean garatutako beste ikerketa batzuen emaitzekin alderatzea baina, gaur gaurkoz, hori egitea ez da posible, euskararen unibertso hau azterteke baitago oraindik. Zentzu horretan, aurrekari falta dela eta, azterlan honetan lortutako emaitzek ikerketa-ildo berriak zabaltzeko aukera eman dezaketela uste izan dugu. Esate baterako, ikerketa honetako emaitzei begiratuta, artikuluko zientifikoaren laburpenak osatzen dituzten mugimendu-egituren heterogeneotasuna da ezaugarri nabarmena. Oihartzun gehien daukan ekoizpen akademikoa ingelesez egiten da (Laborde 2011) eta ingelesezko idazketa akademikoan *abstract* generoa garatzeko kanon zehatzak daude, dagoeneko egonkortuta eta komunitate zientifikoaren aintzatespena jasota. Gauzak ez dira horrela gure testuinguruan: euskaraz egiten dugun idazketa akademikoan laburpenaren generoa oraindik finkatu gabe dagoela esan genezake.

Horrez gain, beste faktore batzuk ere eragin ahal izan dute euskarazko laburpenetan ikusi dugun heterogeneotasun horretan: batetik, euskaraz egiten den idazketa akademikoaren ibilbidea laburra dela esan genezake eta horren ondorio izan liteke oraindik testu-generoen egiturak egonkortsu gabe egotea; bestetik, aldizkari zientifikoetan argitaratzeko jarraibideak ematen dituzte aldizkari horiek, baina egileentzako oharretan ez da eman ohi laburpenek izan beharreko egitura edo ezaugarri buruzko zehaztapenik. Horren guztiaren berri izanda, ikusteke dago euskal komunitate zientifikoak zer egingo duen. Lehengo urratsa gertatzen denaz jabetzea da eta horretan jarri nahi lukete bere alea esku-artean daukagun lanak eta ikerlerro honetan gauzatzen ari garen beste lanek. Behin egoeraz jabetuta, erabaki egin behar da artikuluko zientifikoetako testu-generoen kanonak zehazteak onurarik ekartzen al digun eta horren aurrean zer egin nahi dugun. Eta horretan berebiziko eragina izan dezakete aldizkarietan adierazten diren egileentzako oharrek; euskal kanonak sortu edo bateratu nahi baldin badira, hor egon liteke gakoa, Swalesek (2004) esandakoarekin bat eginez.

Euskal komunitate zientifikoak geroz eta formatuagoa dagoela esan genezake: geroz eta euskarazko doktorego-tesi gehiago egiten dira (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila d.g.) eta euskal komunitate zientifiko-intelektualaren datu-basea den Inguman euskal ekoizpen akademikoa oparatu dela ziurta dezakegu (<https://www.inguma.eus/>); horrek, berekin dakar euskara ez beste hizkuntzetan argitaratutako literatura irakurtzea eta hizkuntza horietan egiten den idazketa akademikoa eta testu-generoetako eginbideak ezagutzea, batetik, eta *abstract* generoaren funtzioa barneratzea, bestetik. Horrez gain, beste bi ideia: batetik, euskal komunitate zientifikoak osatzen dugun ikertzaileok behartuta gaude oso parametro zorrotzak dauzkaten egiaztapen zientifikoak eskuratzera eta, horretarako, ezinbestekoa da nazioartean prestijioa daukaten aldizkari nahiz argitaletxeetan argitaratzea (Isasi 2004, Apalategi 2017); eta, bestetik, euskarazko lanak (ere) argitaratzen dituzten aldizkari zientifikoak kalitate-irizpide horiek lortzeko prozesuetan sartzen ari direla dirudi (Boillos eta Bereziartua 2020). Horrekin guztiarekin lotura izan dezake testu-generoen egiturak bateratzeko eta egonkortzeko joerak. Blancok (2017a) hezkuntzaren esparruan egindako ikerketan ikusi zuen egituretan gero eta egonkortasun handiagoa dagoela eta ikusi egin behar da gure testuinguruan ere horrela gertatzen den.

Testuinguru honetan, badira interesgarriak eta emankorrek begitantzen zai-zkigun zenbait ikerketa-esparru. Ikerketaren ikuspuntutik, euskarazko idazketa akademikoa oraindik aztertu gabeko ikergai joria delakoan gaude, bai alderdi diskurtsibotik begiratuta eta bai alderdi linguistikotik begiratuta. Interesgarria izango litzateke, beste hizkuntza batzuetan egiten den gisan, eremu akademikoan euskaraz sortzen diren ekoizpenen ezaugarri diskurtsiboak ezagutzea eta horietan erabiltzen den hizkuntzaren nondik norakoen jakitun izatea.

Artikulu zientifikoetako laburpenak ekoizten eta kontsumitzen dituztenei begira jarrita, interesgarria izango litzateke irakurlearen ikuspegia ezagutzea: bere itxaropenak betetzen al dira? Laburpenek beren funtzioa betetzen al dute? Eta baita laburpenak sortzen dituztenen ikuspegia ezagutzea ere: zein da euskal ikertzaileen *modus operandia abstractak* idazten dituztenean? Zeintzuk dira hartzen dituzten erabakiak eta zertan oinarritzen dira erabaki horiek hartzeko?

Amaitzeko, hezkuntzaren eremuari egingo diogu keinu. Unibertsitate mailako irakaskuntzan pixkanaka lekua hartzen ari dira ikasleak euskarazko idazketa akademikoan trebatzeko ekimenak. Baina oraindik egiteko asko dagoela esan genezake. Euskarazko idazketa akademikoaren irakaskuntzak unibertsitateko graduatan izan beharko lukeen —eta, gaur gaurkoz, ez daukan— tokia alde batera utzita, behar beste baliabide pertsonal eta material ez daudela iruditzen zaigu, ez irakasleon prestakuntzari dagokionez eta ez erabiltzeko materialei dagokionez (Bereziartua eta Boillos 2020). Esku-artearen dugun lanaren gisakoek horretan lagun dezaketelakoan gaude.

BIBLIOGRAFIA

- Al-Khasawneh, F.M. (2017) «A genre analysis of research article abstracts written by native and non-native speakers of English», *Journal of Applied Linguistics and Language Research*, 4(1), 1-13 or.
- Alotaibi, H. (2015) «Metadiscourse in Arabic and English research article abstracts», *World Journal of English Language*, 5(2), 1-8 or. doi: <https://doi.org/10.5430/wjel.v5n2p1>
- Al-Shujairi, Y. B.J., Ya'u, M. S. + Buba, J.A. (2016) «Role of moves, tenses, and metadiscourse in the abstract of an acceptable research article», *Mediterranean Journal of Social Sciences*, 7(2), 379-386 or. doi: <https://doi.org/10.5901/mjss.2016.v7n2s1p379>
- American Psychological Association (2020) *Publication manual of the American Psychological Association* (7th ed.). doi: <https://doi.org/10.1037/000016S-000>
- Ansarifar, A., Shahriari, H. + Pishghadam, R. (2018) «Phrasal complexity in academic writing: A comparison of abstracts written by graduate students and expert writers in applied linguistics», *Journal of English for Academic Purposes*, 31, 58-71 or. doi: <https://doi.org/10.1016/j.jeap.2017.12.008>

- Apalategi, J. (2017) «Giza eta Gizarte Zientziak eta Pedagogia euskaraz», *Uztaro*, 100+, 21-26 or. doi: <https://bit.ly/39g0Dgy>
- Artetxe, K. (2013) *Komunitate zientiko euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa* (Doktorego tesia), UPV/EHU.
- Bakhtin, M. (1979) «El problema de los géneros discursivos». Bakhtin, Mikhail, *Estética de la creación verbal*, Mexiko, Siglo XXI, 248-293 or.
- Bereziartua, G. + Boillos, M.M. (2020) «Laburpen zientifikoien izaera diskurt-siboa: Ikastorratza aldizkariaren azterketa», *Ikastorratza. Didaktikarako e-aldizkaria*, 25, 179-207 or. doi: https://doi.org/10.37261/25_alea/7
- Bhatia, V. (1993) *Analyzing Genre. Language Use in Professional Settings*, Harlow, Longman.
- Bhatti, I.A., Mustafa, S. + Azher, M. (2019) «Genre analysis of research article abstracts in Linguistics and Literatura: a cross disciplinary study», *International Journal of English Linguistics*, 9(4), 42-50 or. doi: <https://doi.org/10.5539/ijel.v9n4p42>
- Blanco, C.E. (2017a) «Cambio y estabilidad en resúmenes de una revista venezolana de educación (1997-2016)», *Educação Unisinos*, 21(2), 243-251 or. doi: <https://doi.org/10.4013/edu.2017.212.13>
- Blanco, C.E. (2017b) «Discurso académico en Educación: resúmenes de artículos de ocho revistas especializadas venezolanas», *Revista de Pedagogía*, 38(103), 58-81 or. doi: <https://doi.org/10.15517/rfl.v31i1.4414>
- Boillos, M.M. + Bereziartua, G. (2020) «Euskara eremu zientifikoan: giza eta gizarte zientziei buruzko aldizkarietako laburpenen azterketa kuantitatiboa (2010-2019)», *Fontes Linguae Vasconum*, 129, 141-178 or. doi: <https://doi.org/10.35462/FLV129.5>
- Can, S.; Karabacak, E. + Qin, J. (2016) «Structure of Moves in Research Article Abstracts in Applied Linguistics», *Publications*, 4(23). doi: <https://doi.org/10.3390/publications4030023>
- Darabad, A. M. (2016) «Move analysis of research article abstracts: A cross-disciplinary study», *International Journal of Linguistics*, 8(2), 125-140 or. doi: <https://doi.org/10.5296/ijl.v8i2.9379>
- Dos Santos, M. (1996) «The Textual Organization of Research Paper Abstracts in Applied Linguistics», *Text & Talk*, 16(4), 481-499 or. doi: <https://doi.org/10.1515/text.1.1996.16.4.481>
- El-Dakhs, D.A.S. (2018) «Comparative genre analysis of research article abstracts in more and less prestigious journals: linguistics journals in focus», *Research in Language*, 16 (1), 47-63 or. doi: <https://doi.org/10.2478/rela-2018-0002>
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. (d.g.) *Euskarazko doktorego-tesiak*. Kultura eta hizkuntza Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.

- <https://www.euskadi.eus/euskarazko-doktorego-tesien-sarrera/web01-a3tesiak/eu/helbidetik berreskuratua>.
- Friginal, E. + Mustafa, S.S. (2017) «A comparison of US-based and Iraqi English research article abstracts using corpora», *Journal of English for Academic Purposes*, 25, 45-57 or. doi: <https://doi.org/10.1016/j.jeap.2016.11.004>
- Gibaldi, J. (2008) *MLA style manual and guide to scholarly publishing*, New York, MLA Publications.
- Hyland, K. (2000) *Disciplinary Discourse: Social Interactions in Academic Writing*, Michigan, Longman.
- Ibáñez, R., Moncada, F. + Santana, A. (2015) «Variación disciplinar en el discurso académico de la Biología y del Derecho: un estudio a partir de las relaciones de coherencia», *Onomázein*, 32, 101-131 or. doi: <https://doi.org/10.7764/onomazein.32.6>
- Isasi, X. (2004) «Unibertsitario euskaldunen egoera zaila», *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 50, 131-139 or. doi: <https://bit.ly/2WOKg86>
- Kaplan, R.B. (1966) «Cultural thought patterns in intercultural education», *Language Learning*. 16, (1-2), 1-20 or. doi: <https://doi.org/10.1111/j.1467-1770.1966.tb00804.x>
- Kaplan, R.B., Cantor, S., Hagstrom, C., Kamhsi-Stein, L.D., Shiotani, Y., + Zimmerman, C.B. (1994) «On abstract writing», *Text*, 14(3), 401-426 or. doi: <http://doi.org/10.1515/text.1.1994.14.3.401>
- Khansari, D., Chan, S.H., Chan, M. Y. + Tan, H. (2016) «Regularities and Irregularities in Rhetorical Move Structure of Linguistics Abstracts in Research Articles», *3L: The Southeast Asian Journal of English Language Studies*, 22 (1), 39-54 or. doi: <http://doi.org/10.17576/3L-2016-2201-04>
- Laborde, J. (2011) «The evaluation of researchers and the future of Latin American scientific journals». Cetto, Ana María + J. O. Alonso, Jose Octavio, *Calidad e Impacto de la revista Iberoamericana*, Mexiko, UNAM, 59-79 or., <http://www.latindex.unam.mx/librociri/helbidetik/berreskuratua>.
- Lores, R. (2004) «On RA abstracts: From rhetorical structure to thematic organization», *English for Specific Purposes*, 23, 280-302 or. doi: <https://doi.org/10.1016/j.esp.2003.06.001>
- MacDonald, S.P. (1990) «The literary argument and its discursive conventions». Nash, Walter, *The Writing Scholar. Studies in academic discourse*, Newbury Park, Sage Publications, 31-62 or.
- Menezes, C. A. (2013) «A comparative study of textual and rhetorical features of abstracts written by expert and novice writers», *A Palavrada*, 3, 10-18 or.
- Modern Language Association (2016) *MLA Handbook* (8th Edition), New York, MLA.

- Oneplee, J. (2008) *Genre analysis of scientific abstracts: A comparative study of Science and Nature journals*, Master's thesis at Mahhidol University, Thailand. <http://mulinet11.li.mahidol.ac.th/thesis/2551/cd420/4936532.pdf> helbidetik berreskuratua.
- Otegi, A., Imaz, O., Díaz de Ilarraza, A., Iruskietta, M. + Uria, L. (2017) «AN-ALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research», *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 58, 77-84 or.
- Piqué-Noguera, C. (2012) «Writing business research article abstracts: A genre approach», *Ibérica*, 24, 211-232 or.
- Quintanilla, A. (2016) «La organización retórica del resumen o abstract del artículo de investigación en educación», *Estudios Pedagógicos*, 42(2), 286-298 or. doi: <https://doi.org/10.4067/S0718-07052016000200016>
- Samraj, B. (2008) «A discourse analysis of master's theses across disciplines with a focus on introductions», *Journal of English for Specific Purposes*, 7, 55-67 or. doi: <https://doi.org/10.1016/j.jeap.2008.02.005>
- Seyed, P.S. + Shamala, P. (2019) «Rhetorical move analysis in political science research article abstracts in English in Iranian journals», *Journal of Language and Communication*, 6(1).
- Swales, J. M. (1990) *Genre Analysis. English in Academic and Research Settings*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Swales, J. M. (2004) *Research Genres: Exploration and Applications*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Tankó, G. (2017) «Literary research article abstracts: An analysis of rhetorical moves and their linguistic realizations», *Journal of English for Academic Purposes*, 27, 42-55 or. doi: <https://doi.org/10.1016/j.jeap.2017.04.003>
- Tseng, F. (2011) «Analysis of Move Structure and Verb Tense of Research Article Abstracts in Applied Linguistics Journals», *International Journal of English Linguistics*, 1(2), 27-39 or. doi: <https://doi.org/10.5539/ijel.v1n2p27>
- Weissberg, R. + Buker, S. (1990) *Writing Up Research. Experimental Research Report Writing for Students of English*, New Jersey, Prentice Hall Regents.
- Zanina, E. (2017) «Move structure of research article abstracts on Management: Contrastive study (the case of English and Russian)», *Journal of Language and Education*, 3(2), 63-72 or. doi: <https://doi.org/10.17323/2411-7390-2017-3-2-63-72>